

**2007KO MAIATZAREN 10EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamarra

HILABETEA: Maiatza

URTEA: Bi mila eta zazpia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Arantza Aseginolaza Azkargorta
Imanol Aranburu Gutierrez
Pello Garaialde Goikoetxea
Malu Valles Fernandez
Aitor Aldasoro Iturbe
Jon Olano Arrese
Joan Martin Aldaregia Etxebarria
Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga
Ana Asla Egialde
Jon Kortaberria Lasa
Fernando Boada Gonzalez
Julio Herreros Serna
Julia Fernanda Hidalgo Perez

ETORRI GABEA: Alfonso Segade Gonzalez
Maria Pilar Vispo Chamosa
Gonzalo Zaldo eta Arana

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2007ko martxoaren 29ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da bildutakoek berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK. 10, 32, 34, 38 Areako eta 2. sektoreko fitxa urbanistikoen onespena.

Alkate jaunak Hirigintza Batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

Gaia: 10, 32, 34, 38 Areako eta 2. Sektoreko fitxa urbanistikoen onespena.

Asunto: Aprobación de las fichas urbanísticas de las áreas 10, 32, 34, 38 y Sector 2.

AURREKARIAK

1.- Udalbatza Osoak 2007ko martxoaren 1ean egindako bileran gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu zuen:

“Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuntza eta egokitze dokumentuaren Testu Bateratua onartzea eta Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea onartu dezan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dezan. Hori guztia bigarren puntuari adierazten den kalerik gabe.

Paraleluki, ondorengo eremuak jendaurrean jartzea hilabeteko epean:

- 32 eta 38 Areak.
- 10 eta 34 Areak.
- 2. Sektore berria, 32 Arearen zati bati klasifikazioa aldatzetik sortu dena.

ANTECEDENTES

1.- El Ayuntamiento Pleno en la sesión ordinaria celebrada el día 1 de marzo de 2007, adoptó con mayoría absoluta el siguiente acuerdo:

“Aprobar el Texto Refundido del documento de revisión y adaptación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Beasain, y remitirlo a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación y publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sin perjuicio de lo dispuesto en el punto segundo.

Paralelamente, someter a información pública por espacio de un mes los siguientes ámbitos:

- Las Áreas 32 y 38.
- Las Áreas 10 y 34.
- El nuevo Sector 2 "Errekarte, II", que se genera como consecuencia del cambio de clasificación de parte del Área 32.

Jendurrean jartzea erabaki da, lehenengo bi Areetan eta 2. Sektorean zoruaren klasifikazio aldaketa eta bi bigarrenetan mugaldaketak funtsezko aldaketak kontsideratzen direlako.”

2.- Area horiek eta aipatutako Sektorea jendurrean jarri ziren, 2007ko martxoaren 4ko Berrian, 2007ko martxoaren 7ko Diario Vascon eta 2007ko martxoaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratu eta hilabeteko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuntza eta egokitze dokumentuaren Testu Bateratuan aurreikusitako 10 (Arangoiri), 32 (Erreakarte), 34 (Dr. Fleming), 38 (Ihurre) Areako eta 2. Sektoreko (Erreakarte II) arauzko eta grafiko fitxak onartzea

Bigarren. Erabaki hau dagokion espediente administratiboarekin batera Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea onartu dezan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dezan.

Se acuerda abrir un nuevo período de información pública, por considerar en las dos primeras y en el Sector 2, el cambio de clasificación de suelo y en las dos segundas el cambio de delimitación, modificaciones de carácter sustancial.”

2.- Las referidas áreas y sector se sometieron a información pública mediante anuncios insertos en el Berria del 4 de marzo de 2007, en el Diario Vasco del 7 de marzo de 2007 y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del 20 de marzo de 2007 y en el plazo de un mes no se ha presentado ninguna alegación.

En consecuencia, la Comisión de Urbanismo somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:

Primero. Aprobar las fichas normativas y gráficas de las Áreas 10 (Arangoiti), 32 (Erreakarte), 34 (Dr. Fleming) y 38 (Ihurre), así como el Sector 2 (Erreakarte II) que forman parte del Texto Refundido del documento de revisión y adaptación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Beasain.

Segundo. Remitir el presente acuerdo junto con el correspondiente expediente administrativo a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación y publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek EBko ordezkariak ezik adostasuna adierazi dute proposamenarekiko.

Horren ondorioz, bozketa eginda emaitza hau lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak:

Abstentzioak: 1 (EB)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- HITZARMENA. CONSTRUCCIONES AMENABAR, S. A.rekin sinatu beharreko hitzarmenaren aldaketa onartzea babes ofizialeko 40 etxebizitza esleitzeko.

Alkate jaunak hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

HIRIGINTZA BATZORDEKO PROPOSAMENA

Gaia: CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.rekin sinatu beharreko hitzarmenaren aldaketa.

2007ko martxoaren 29ko Osoko Bilkuran CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.rekin sinatu beharreko hitzarmenaren edukia onartu bazen ere, bertan ez dira jasotzen 1 Sektoreko Konpentsazio Proiektuan onartutako birralojatze konpromiso guztiak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak ez denez etxebizitzak sustatzen dituen, ez da 2002ko ekainaren 14ko Aginduan aurreikusitako erreserbarik ezarri, bakarrik derrigorrezkoa den mugikortasun urri iraunkorra duten minusbaliatuei bideratutako nahitaezko erreserba kupoa.

PROPUESTA DE LA COMISIÓN DE URBANISMO

Asunto: modificación de convenio a suscribir con CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.

Si bien en la sesión plenaria del 29 de marzo de 2007, se aprobaron los términos del convenio a suscribir con CONSTRUCCIONES AMENABAR, S. A., en el mismo no se recogieron todos los compromisos de realojo aprobados en el Proyecto de Compensación del Sector 1.

Por otro lado al no ser viviendas promovidas por el Gobierno Vasco, no se ha establecido ninguna de las reservas recogidas en la Orden de 14 de junio de 2002, salvo la de la destinada a personas discapacitadas con movilidad reducida de carácter permanente, que es de obligado cumplimiento.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aipatutako hitzarmenaren lehenengo eta seigarrengo estipulazioa aldatzea, era honetan idatzita gelditzen direlarik:

Lehenengo estipulazioa

CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.k sustatutako babes ofizialeko 42 etxebizitzetatik, 4o Notario aurrean egindako zozketa bidez esleituko dira, jarraian adierazten prozeduraren arabera.

Zozketa prozeduratik, bi etxebizitza salbuesten dira, bizikidetz-unitate baten birralojatzea eta pertsona fisiko baten biziarteko usufruktua bermatzeko. Etxebizitza hauen kokapena, azalera eta erdieste edo erabilera-erregimena, ondorengoak dira:

Lehenengo kasuan, 1. atarian eta bigarrenko oinean kokatutako etxebizitza, D letra duena. Erabiltzekoa azalera 69,35 m²koa da eta eraikitakoa berriz, 86,36 m²ko. Erregimena, erabateko jabaria izango da eta birralojatze onuradunen kontura izango dira, etxebizitza eskuratzeko gastuak, hala nola, notaritzakoak erregistrokoak, BEZ etab.

En consecuencia la Comisión de Urbanismo somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:

Primero. Modificar la primera y la sexta estipulación del referido convenio, quedando redactadas de la siguiente manera:

Estipulación primera.

De las 42 viviendas de protección pública promovidas por CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A., 40 se adjudicarán mediante sorteo ante Notario, en los términos y con arreglo al procedimiento que en adelante se indica.

Del procedimiento de sorteo se excluyen dos viviendas para garantizar el derecho de realojo de una unidad convivencial y el usufructo vitalicio de una persona física. Las condiciones de ubicación, superficies de las viviendas, régimen de acceso y uso, serán las siguientes:

En el primer caso, vivienda del portal 1, segundo piso, letra D, con una superficie útil de 69,35 m² y construida de 86,36 m² en pleno dominio, y siendo a cargo de los beneficiarios del derecho de realojo los gastos inherentes a la adquisición tales como Notaria, Registro, IVA u otros.

Bigarren kasuan, 3. atarian eta bigarren oinean kokatutako etxebizitza, C letra duena. Erabiltzeko azalera 61,62 m²koa da eta eraikitakoa berriz, 76,74 m²ko. Etxebizitza hau Udalaren zenean erregistratuko da.

En el segundo caso, vivienda del portal 3, segundo piso, letra C, con una superficie útil de 61,62 m² y construida de 76,74 m². Esta vivienda se registrará a nombre del Ayuntamiento.

Seigarren estipulazioa

Etxebizitzak jabetzan esleituko dira eta esleipendunen hautaketa, Notario aurrean egindako zozketaren bidez egingo da. Horretarako 2002ko ekainaren 14ko Aginduan aurreikusitako mugikortasun urri iraunkorra duten minusbaliatuei bideratutako nahitaezko erreserba kupo errespetatuko da. Zozketa egiteaz, Beasaingo Udala arduratuko da.

Estipulación sexta

Las viviendas se adjudicarán en régimen de propiedad y la selección de los adjudicatarios se llevará a cabo mediante sorteo ante Notario, respetando el cupo de reserva obligatoria señalada en la Orden de 14 de junio de 2002, para personas discapacitadas con movilidad reducida de carácter permanente. De la realización del sorteo se encargará el Ayuntamiento de Beasain.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Estamos de acuerdo con la propuesta. No obstante decir que esto parece una carrera de obstáculos. Espero que esto signifique un avance para que las mencionadas viviendas de VPO sean una realidad,

Alkatea jaunak (EAJ/PNV-EA): “El problema para el inicio de las obras es el traslado de una torre de Iberdrola existente en la parcela destinada a la construcción de esas viviendas.”

Besterik gabe, bozketa eginda eta aho batez onartu da proposamena.

4.- HIGIEZINAREN LAGAPENA. Osasun Zentro berria Eusko Jaurlaritzari lagatzea.

HAZIENDA BATZORDEKO PROPOSAMENA

**Gaia: Euskal Herriko
Autonomia Erkidegoaren
Administrazioari Osasun Zentroa
lagatzea.**

AURREKARIAK

I.- 2001eko uztailaren 13ko datarekin, Beasaingo Udalak Eusko Jaurlaritza eta Osakidetzarekin elkarlan-hitzarmena sinatu zuen eskualderako osasun zentroa egiteko. Hitzarmen horretan Udalak ondorengo konpromisoa hartu zuen: osasun zentroa Eusko Jaurlaritzari lagatzea obrak bukatutakoan.

II.- 2004ko maiatzaren 4an Udalak Beasain Lantzen, S.A.ri eskualderako Osasun Zentro berria eta sotoetako garaje oinaren sustapena enkargatu zion.

Horretarako Beasaingo Udalak Beasain Lantzen, S.A.ri besterendu zion anbulatorioko 2.024,25 m² lursailaren %5,50eko partizipazioa, eta ondorengo adostu zen:

- Garajeen jabetza, Beasain Lantzen, S.A.ri ematen zaio.
- Osasun Zentroa berriz, Beasaingo Udalarari ematen zaio.

PROPUESTA DE LA COMISIÓN DE HACIENDA

Asunto: cesión del centro de salud a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

ANTECEDENTES

I.- Con fecha 13 de julio de 2001, el Ayuntamiento de Beasain firmó un convenio de colaboración con el Gobierno Vasco y Osakidetza-Servicio Vasco de Salud para la construcción de un centro de salud de carácter comarcal, comprometiéndose el Ayuntamiento a su cesión, una vez finalizadas las obras.

II.- El Ayuntamiento Pleno el 4 de mayo de 2004, acordó encargar a "Beasain Lantzen, S.A.", la promoción del nuevo Centro de Salud comarcal y la planta sótano de garajes.

Para ello el Ayuntamiento enajenó a Beasain Lantzen, S.A, la participación de 5,50% de la finca de 2.024,25 m² del ambulatorio, estableciendo el siguiente pacto de accesión modalizada:

- Respecto a la edificación de los garajes la propiedad se atribuye a Beasain Lantzen, S.A.
- Respecto al Centro de Salud, la propiedad se atribuye al Ayuntamiento

de Beasain.

III.- 2007ko maiatzaren 3ko datarekin, Osasun Zentroaren eta garaje-sotoaren obra berriaren aitorpena egin da.

ONARRI JURIDIKOAK

Legeri aplikagarria ondorengo xedapenetan jasota gelditzen da:

- Ekainaren 13ko 1372/1986, Erret Dekretuak onartutako Entitate Lokaletako Ondasun Araudiaren 109 eta ondorengo artikulua, prozedura eta organoaren eskuduntzari dagokionez.
- Apirilaren 2ko 7/1985, erregimen lokaleko oinarriak erregulatzeko dituen Legearen 47,3l) artikulua, onartzeko quorumari buruz.

Horren ondorioz, Hacienda batzordeak Udalbatzarrari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Osasun Zentroaren eraikina Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Administrazioari lagatzeko hasierako onespina ematea. Lagapena Ondasun Araudiaren 111. artikulua araberan egiten da.

Dena dela, goian aipatutako hitzarmenaren laugarren estipulazioaren araberan, eraikina,

III.- Con fecha 3 de mayo de 2007, se ha otorgado la escritura de obra nueva del Centro de Salud y de la planta sótano de los garajes.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

La legislación aplicable viene recogida en los siguientes preceptos:

- Artículos 109 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, en cuanto al procedimiento de cesión y competencia del órgano se refiere.
- Art. 47,3 l) de la Ley 7/1985, de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local, en cuanto al quórum para su aprobación.

En consecuencia, la Comisión de Hacienda somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:

Primero. Aprobar inicialmente la cesión del edificio del Centro de Salud a la Administración de la Comunidad Autónoma del País vasco, de conformidad con lo establecido en el art. 111 del Reglamento de Bienes.

No obstante, de conformidad con lo dispuesto en la estipulación cuarta del convenio mencionado, en

hogeita hamar urte igaro baino lehen
sanitate-arreta eskaintzeari
uzteagatik, higiezinak itzuli beharko
balira, Beasaingo Udalak,
Osakidetzak emandako
eguneratutako dirulaguntzarekin
Euskal Herriko Autonomia
Erkidegoari konpentsatuko dio,
erabileraren aldaketa Udalak
eskatuta izaten bada.

el caso de que, por dejar de
destinarse el edificio a atención
sanitaria pública antes de
transcurridos 30 años desde la
referida cesión, procediera la
reversión de los inmuebles, el
Ayuntamiento de Beasain,
compensará a la Administración de la
Comunidad Autónoma de Euskadi
con el importe actualizado de la
subvención concedida por
Osakidetza, siempre y cuando la
referida modificación de destino se
realice a solicitud del propio
Ayuntamiento.

Bigarren. Espedientea
jendaurrean jartzea hamabost
eguneko epean, GAO n eta ediktu
taulan iragarkia argitaratuz eta bide
batez prozeduran interesatuta
daudenei erabaki honen berri
ematea, bidezkoak diren alegazioak
aurkeztu ahal izateko.

Segundo. Someter el
expediente a información pública por
espacio de quince días mediante la
publicación del anuncio en el BOG y
en el tablón de edictos del
Ayuntamiento, así como notificar el
presente acuerdo a los interesados
en el procedimiento, a efectos de
presentar las alegaciones que
estimen pertinentes.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko
adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

Une honetan M^a Pilar Vispo sartu da batzarraldira.

5.- KONTU OROKORRA. 2006. urteko Kontu Orokorraren onespena.

Alkateak proposamenaren berri eman du:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakunde
buruzko en el art. 63.2 de la Norma Foral
21/2003 Foru Arauaren 63.2 artikuluan 21/2003,
xedatutakoa betez, Batzorde honek Entidades Locales del Territorio
2.006ko Aurrekontu Orokorraren Kontu Histórico de Gipuzkoa, esta Comisión

Orokorra aztertu du horretarako kontu horiek, dagozkien dokumentuak eta Alkatearen Ebazpenaren bidez onartutako aurrekontuen likidazioak aurrean izan ditu.

ha procedido al examen de la Cuenta General del Presupuesto General de 2.006, a cuyo efecto ha tenido a la vista dichas cuentas junto con los documentos correspondientes que las justifican, así como la liquidación de los indicados Presupuestos, aprobados por Resolución del Alcalde.

Dokumentu hauek eta aurrekontuari buruzko abendua(r)en 31ko kutxako kontaketa aktak azterturik, Batzorde honek aipatutako kontuak onartzen ditu. Nolanahi ere, Udalbatzarrak egokia deritzona erabakiko du.

Examinados dichos documentos, así como las actas de arqueo de 31 de diciembre último, referente a fondos del Presupuesto, esta Comisión aprueba las cuentas citadas. No obstante, el Pleno acordará lo que estime procedente.

Jarraian adierazi du Kontu Orokorrak jendaurrean egon ondoren, ez dela inolako alegaziorik aurkeztu eta horren ondorioz Osoko Bilkurari dagokiola onartzea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

6.- GOIEKI. 2006. ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabaz eta galeren kontuak onartzea.

Ezagutzera eman dira GOIEKIko 2006. ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabaz eta galeren kontuak.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute, EBko ordezkariak ezik.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

Mikel Olano "Igartzatic" plataformakoak adierazi du, GOIEKIn ez daudela alderdi guztiak ordezkatu.

Alkateak ordea, erantzun dio alderdi guztiak ordezkatuta daudela. Plataformatik Olaberriko bat joaten delako.

Mikel Olano jaunak bere aldetik ondorengoa ihardetsi dio: Olaberrikoa ez da plataformeetako ordezkaria.

Julio Herreros jaunak (PP): "): "Sra. Secretaria le exijo a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo en este Pleno, que es la participación de la plataforma ilegalizada. Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal."

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): "Reitero lo que he dicho en otros Plenos. Me hago responsable."

7.- BIZTANLE ERROLDA. 2007ko urtarrilaren 1eko biztanle kopuru ofiziala onartzea.

Alkate jaunak, 2006ko urtarrilaren 1etik 2007ko urtarrilaren 1era sortutako mugimenduen berri eman du, hau da:

Jaiotzak: 158
Hildakoak: 82
Inmigratuak: 532
Emigratuak: 404

Biztanleriaren kopuru ofiziala: 12.932

Jarraian Alkateak adierazi du gaur eguneko biztanleriaren kopurua, 13.243 dela. Jaiotza-tasa asko igotzen ari dela dio eta urtero batz bestea, 175 jaiotza daudela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da.

8.- TASAK. Musika Eskola, Euskaltegi eta ludotekaren tasak onartzea.

Alkateak, Hazienda Batzordeko proposamenaren berri eman du:

GAIA: Beasaingo Udal Euskaltegian eta Beasaingo Loinatz Musika Eskolan 2007-2008 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifaren onespena.

ASUNTO: Aprobación de tarifas para el curso escolar 2007-2008 de los Organismos Autónomos Beasaingo Udal Euskaltegia y Beasaingo Loinatz Musika Eskola.

Hazienda Batzordeak, 2.007ko maiatzaren 7an egindako bileran, goian aipatutako Organismo autonomoek kobratu beharreko tarifak, honekin batera doazenak, onartzea proposatzen dio Udalbatzari.

La Comisión de Hacienda en reunión celebrada en fecha 7 de mayo de 2.007, vistas las tarifas adjuntas correspondientes a los Organismos autónomos arriba mencionados, acuerda proponer al Ayuntamiento Pleno la aprobación de las mismas.

2007-2008 IKASTURTEKO KUOTAK

IKASGAIA	EUROAK
M. Tailerra	16,00
Hastapena	20,25

Instrumentua+ M. Lengoia II . MAILA	55,00
Instrumentua + Gai teorikoa III . MAILA	58,50
M. L + Pandero edo + Kant tald	40,65
M. Lengoia	18,15
Gai Teorikoak	18,15
Informatika	18,15
Instrumentua II . MAILA	40,65
Instrumentua III. MAILA	42,85
Trikitixa	35,20
Panderoa	24,85
Kantua taldean	18,15
Piano + Akonpainamendua	64,25
Piano + Akonpainamendua + Gai teorikoa	76,80
Kantua bakarlari	42,35
IZENEMATEA 07-08	31,00
MATERIALA	6,75

UDAL EUSKALTEGIKO IRAKASKUNTZA ZERBITZUA

2007-2008ko ikasturtea

Ikastaroak	Ordu kopurua	Prezioa materiala barne
Astean 10 orduko ikastaroa, 2007/09/17-2008/06/23	338	412€
Astean 8 orduko ikastaroa 2007/09/17-2008/06/23	274	338€
Astean 6 orduko ikastaroa 2006/09/17-2007/06/23	206	259 €
Astean 4 orduko ikastaroa 2007/09/17-2008/06/23	136	178 €
Etorkinentzako ikastaroa 2007/10/01-2007/12/21 2008/01/07-2008/03/14	60	29€
Autoikaskuntza tutorearekin 2007/09/17-2008/06/23	210	424 €
Udako ikastaroa 2008/006/30-2007/07/25	100	126€

- 2007-2008 ikasturtean orduko 1,16€ kobratuko da.
- Materiala 20 euro , udako ikastaroan erdia, 10 euro
- Ikasleek matrikularen kopuruaren erdia ikastaroa hasi baino lehen edo hasi eta lehenengo hamar eskola-egunetan ordaindu beharko dute. Gainerakoa, hurrengo bi hilabeteetako lehenengo astean egin beharko dute. Udako ikastaroetan, ikastaroa hasi eta lehenengo 7 egunetan ordaindu beharko du.
- Ikasturte amaierako beka eskatzeko eskubidea izango dute Beasainen erroldatuta dauden ikasleek eta dirulaguntza horiek emateko, Udal Ordenantzan jasotakoa aplikatuko da.
- Ikasleak HABEtik ere, jaso dezake dirulaguntzarik Horretarako, euskara mailak egiaztatzeke HABEk deituko dituen azterketak gainditu beharko ditu.

GAIA: Berritsu eta Txelotxe ludoteken zerbitzuengatik 2007-2008 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifaren onspena. **ASUNTO: Aprobación de tarifas para el curso escolar 2007-2008 por la prestación del servicio en ludotecas Berritsu y Txelotxe.**

Hazienda Batzordeak 2.007ko maiatzaren 7an egindako bileran, Berritsu eta Txelotxe ludoteken zerbitzuengatik 2007-2008 ikasturtean aplikagarri izando diren, Euskara Batzordeak proposatutako, tarifaren onspena proposatzen dio Udalbatzari.

La Comisión de Hacienda en reunión celebrada en fecha 7 de mayo de 2.007, acuerda proponer al Ayuntamiento Pleno la aprobación de las nuevas tarifas propuestas por la Comisión de Euskara, que se adjuntan, a aplicar para el curso escolar 2007-2008 por la prestación del servicio de ludotecas municipales.

BERRITSU ETA TXELOTXE LUDOTEKEN ZERBITZUA

2007-2008ko ikasturteko tasak

- Zerbitzua irailetik ekainera emango da

- 2007-2008 ikasturtean 52€ kobratuko da bi ludoteketan
- 2008ko urtarrilean ireki liteke matrikulaldia, horretarako, Udalak baimena eman behar du. Garai horretan matrikulatzen direnei, 26€ kobratuko zaie.
- Udaleko Gizarte Ongizate Sailak sustatutako eskuhartze programetako partaide diren adin txikiko eta gazteek ez dute ludotekako tasarik ordainduko. Gizarte Zerbitzuek ziurtatuko dute partaidetza hori

Jarraian Alkateak ondorengoa dio: “El período impositivo de estas tasas no es del año natural sino que el del año escolar. Como en el resto de las tasas se aplica el IPC interanual, de abril-abril, que en este caso es del 2,4%.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Musika Eskola, Euskaltegi eta ludotekako tasei hasierako onespina ematea.

Bigarren. 30 eguneko epean jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta gehien zirkulatzen duen egunkarian iragarkiak argitaratuz, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

9.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2007ko martxoaren 27tik, 2007ko maiatzaren 7ra bitartean Alkateak emandako ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, Alkateak 2007ko martxoaren 27tik, 2007ko maiatzaren 7ra bitartean Alkateak emandako ebazpenak.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK

SOKA DANTZA

Julio Herreros, PPko zinegotziak galdetu du ea soka-dantza autoritateen dantza den ala ez.

Alkateak baiezkoa erantzun dio.

Julio Herreros jaunak galdetu du hori horrela izanik, zergatik 2006ko Loinatz jaietan “Igartatik” plataformako ordezkariari baimena eman zitzaion

zinegotziekin batera dantza egiteko autoritatea ez izanik. Jarraian erantsi du, aurtan gauza bera gertatzen bada, berak ez duela dantzarik egingo.

Alkateak dantza egiteko eskatu dio.

“Igartzatik plataformako” ordezkariak esan du berari autoritatea, 1055 beasaindarrak eman ziotela.

INAUGURACIÓN DE VIVENDAS DE VPO EN MARIARATS

Fernando Boada, PSE-EE/PSOeko ordezkariak galdetu du ea nor arduratu den Mariarats kalean egin diren babes ofizilaeko etxebizitzaren inaugurazioetaz, gonbidapenak nork egiten dituen eta horien kostua jakitea badagoen.

Alkateak erantzun dio Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren esku egin dela hori guztia eta berari maiatzaren 4an fax bat iritsi zitzaiola gonbidapena jasoz. Jarraian adierazi du orain dela 20 egun ere, Oria Pasealekuan ATZEGIko bi etxebizitza inauguratu zirela, baina ekintza horretarako berak ez zuela inolako gonbidapenik jaso.

Fernando Boadaren ustetan Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila egiten ari dena lotsagarria da, diru publikoarekin hauteskunde kanpaina egiten ari delako.

Jon Kortaberria jaunak ere adierazi du ekintza horretara azaldu zela, baina enteratu zelako, ez gonbidapena zuelako.

Julene Hidalgo, EBko zinegotziak adierazi du berari ere ekintzak horrek jokuz kanpo harrapatuz iola, baina benetan garrantzia duen adela, jendeak giltzak izatea.

Pello Garaialde jaunak bere aldetik, gertatutakoa salatu egin du, etxebizitza horiek bukatuta zeudelako eta hauteskunde-kanpaina dela eta inaugurazioa atzeratu egin delako.

Arantza Aseginolaza andreak azaldu du, ATZEGIren etxebizitzak bere senarrak bultzatu zituela eta horregatik inauguratu behar zirenean gonbidatu zutela eta hori jakindagoan Alkateari esan ziola laguntzeko. Dena dela pentsazen dut Beasainen beste Erakunde Ofizialetakoren batek Beasainen zerbaitekin egin behar badu Udalarri gonbidapena luzatu egin beharko liokeela.

ESPACIOS ELECTORALES

Fernando Boada jaunak galdetu du hauteskundeetako propaganda jartzeko tokiak nola banatzen diren.

Erantzun zaio, beste hauteskundeetan erabilitako irizpide berdinak erabili direla eta toki desberdinetan nola banatu diren berri emango zaiola.

BEASAINGO ABERTZALE SOZIALISTAK

“Igartatik” plataformako ordezkariak galdetu du, orain propaganda jartzeko tokiak errespetatu den bezala ea hauteskunde ondoren beraiek lortutako emaitzak errespetatu behar dituzten.

Alkateak erantzun dio, hori bere garaian ikusiko dela. Dena dela adierazi du, zerrendak garbiak ez dituztela aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.